

AURKEZPENA

1982an Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT), orduan Estatistika Zuzendaritza zenak, Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo estatistika ofiziala argitaratu zuen. Ordutik hona, gauza asko aldatu dira eta, gainera, argitaratzeko zereginari teknologia berrien garapenak bete-betean eragin dio. Argitalpen estatistikoaren honako katalogo honen helburua zera da: epealdi horretan egindako argitalpen guztien bilduma zabala eskaintzea, hain zuzen ere.

2008. urteari dagokion katalogoaren argitaraldi honek erabiltzaileei eskaini nahi die EUSTATEN argitalpenen ikuspegi zabal eta erabilgarria, paperean ez ezik euskarri elektronikoan ere kaleraturiko argitalpenen berri emanez. Guztiok dakigu gure ekoizpenaren zabalkundea, hau da, estatistika ofizialarena, ez dela huts-hutsean oinarritzen ekoizpen inprimatuan, hori baino bizi, arin eta berehalakoagoa den euskarri bat dagoelako, informazioa aton eskuratzeko bidea ematen duena. Jakina denez, Internet aipatzen dihardugu. Urte batzuetatik hona tresna horren erabilera bultzatu da eta, ondorioz, argitalpen ekoizpena nahiko murriztu dela esan daiteke. Bestalde, informazio jariora urritu beharrean, nabarmen handitu da, baina informazio hori aurkitu eta kontsultatu ahal izateko, sareak berak eskaintzen dizkigun bilaketa tresnak erabiltzera ohitu beharrean gaude. Hori dela eta, www.eustat.es gure web gunea bisitatzera gonbidatzen zaituztegu, arestian aipatutako guztia zuen kaxa egiazta dezazuen.

Katalogo hau produktuak antolatu eta multzokatzen dituzten hainbat atalen arabera egituraturik dago. Aurkeztutako produktu bakoitzeko hainbat ezaugarri esanguratsu zehazten dira argitalpenari eta edukiari dagokienez.

EUSTATEk aldez aurretik eskertu nahi ditu argitalpen zerbitzu hau hobetzen lagun dezaketen ohar eta ekimenak.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko uztailean

Victor Urrutia Abaigar

Zuzendari nagusia